

factory
logistika Soinua & Argiak

2019 zoriontsua opa dizuegu!

www.factorysoinua.eus
943 50 44 80
646 277 289
Brunet poligonoa.
Oria etorbidea 8-10. 25 pab.
20160 LASARTE-ORIA

Kontzertuak
Antzerkiak
Bertso saioak
Guneetako soinu eta argi instalazioak
Ekitaldien soinuaztatze eta argiztapena
Kultur ekitaldien produkzio eta azpiegitura logistikoa



EUSKARALDIA

f


txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz

***Txintxarriko lan taldeak
2019 zoriontsua opa dizuegu***

*Hurrengo Txintxarri paperean
urtarrilaren 11n argitaratuko dugu*

Bitartean, jarraitu herriko albisteak sarean: www.txintxarri.eus



2018 urtea

| | |
|-----------|-------|
| Urtarrila | 4-5 |
| Otsaila | 6-7 |
| Martxo | 8-9 |
| Apirila | 10-11 |
| Maiatza | 12-13 |
| Ekaina | 14-16 |
| Uztaila | 18-19 |
| Iraila | 20-21 |
| Urria | 22-24 |
| Azaroa | 26-27 |
| Abendua | 28-29 |

ISLA PLAZA TABERNA / ARDOTEGIA



- Asteazkenetan ardo dastaketak egiten ditugu, animatu!
- Hilean behin upeltegiko ardogi-leekin ardo dastaketak

Ganbo kalea, 1 LASARTE-ORIA
@vinotecaislaplaza



Kale Nagusia, 41 LASARTE-ORIA
@lapizarradelbarbus



korricolari



Euskal kola freskagarria
light + zero stebiarekin



Naturala, bakarra eta etxekoa

Bezzeroaren arreta
edo salmenta:

Tel.: 634 44 75 40

@: infokorricolari@gmail.com

f Korricolari Euskal Kola freskagarria

Instagram Korricolarietrefrescodecola

www.korricolari.eus

Urtea umore onean amaitzeko, lasterketa txiki bat herrian

400 pertsonak baino gehiagok aurre egin zioten euriari eta haize zakarrari, eta giro onean amaitu zuten 2017a

Txintxarri

Proba gaztea da San Silvestre lasterketa Lasarte-Orian, baina lehen urtetik izaera bereziari eutsi dio. Lehiaketa hutsa baina gehiago baita: urtea amaitzeko mozorro eta umore festa handi bat. Eta 2017ko abenduaren 31n izaera hori berretsi zuen. Euriteak eta haize zakarrak ez zuen festa zapuzterik izan, 400 pertsonak baino gehiagok aurre egin baitzioten eguraldi txarrari.

Egun osoko festa prestatu zuten antolatzaileek. Goizean pintxopote solidarioa egin zuten, eta lasterketaren aurretik beroketa saioa egin zuten denok batera, Lorena Garciaren eskutik.

1 zenbakidun dortsala baliatu zuten herritarrak omentzeko. Kasu honetan Erketz Euskal Dantza Taldeko kideek eraman zuten zenbakia, 50. urtemuga ospatzeko. Gaizka Ormazabal



Lasterkariak, mozorrozuta. TXINTXARRI

eta Asier Eizagirre kideek korri egin zuten, euskal jantzi tradizionalak soinean.

Lasterketa berezia dela erakusten du sari banaketak. Azkarrenak saritu ez ezik, mozorro originalenak eraman zituztenek ere jaso zuten aitortza.



Ikastolako pankarta. TXINTXARRI

Ezin erraustegiari buruzko kezka adierazi

Landaberri ikastola eta Artzabaletan eraikitzen ari diren erraustegiaren artean 500 metro besterik ez daude. Proiektua lantzen hasi zenetik ikastolako organoek osasunean eragin ditzakeen kalteekiko kezka adierazi zuten, eta hainbat ekintza eraman dituzte aurrera hori jakinarazteko, batez ere eraikitzen hasi zirenetik.

Hori azaleratzeko moduetako bat Landaberri ikastolako Zubietako eraikineko hesian dauden pankartak dira. Ikastolako irakasleek jakitera eman zutenenez, 2017ko azaroaren 30ean Hezkuntza ikuskaritzaren deia jaso zuen Landaberri ikastolak, pankartak kentzeko aginduz.

Hori dela eta, ikastolako 54 irakaslek haien iritzia eman eta ikastolak jarraitutako pausoen berri emanez oharra plazaratu zuten. Udalbatzarrerara ere gerturatu ziren, Jesus Zaballos alkateari aurrez aurre jakinarazteko.



TXINTXARRI

Puntako atleten bilgunea

Urtarrileko azken igandean izarrez bete zen hipodromoa, Lasarteko Nazioarteko Krosean. Daisy Jepkemei eta Aweke Ayalew atletak irabazi zuten lasterketa. Irudian, gizonetako krosaren helmugaratzea.



TXINTXARRI

Gabonetan ere, futbolean

Gabonetako areto futboleko topaketak hasi bezala amaitu zituzten, giro onean eta lagun artean. Eguzki areto futboleko elkarteak antolatu zuen txapelketa. Ligaxka jokatu zuten hasieran, eta urtarrileko lehenengo astean jokatu zituzten finalak. Lehiatuak izan ziren partidak. Halere, denek lortu zuten helburua: lagun artean kirolaz eta futbolaz gozatzea. Denentzako dominak izan ziren bukaeran.



TXINTXARRI

Saski, baloi eta lagun artean

Urteroko hitzordu saihestezina bihurtzeaz gainera, inguruko erreferentzia ere bada: Ostadar Saskibaloiak urte amaieran antolatu zuen bosgarrenez 3x3 saskibaloi txapelketa, eta beste urte batez arrakastatsua izan zen ekimena. Talde ugari eta kategoria guztietakoak animatu ziren, baloi eta lagun artean urtea amaitzera.

Urteari agur, Buruntzatik

2012an antolatu zuten lehenengoz mendi irteera, eta tradizio bilakatu da honezkerok. Ttakun Kultur Elkarteak eta Ostadar SKTK antolatutako erromeria eta hamaiketokora gerturatu ziren lasarteoriatar ugari abenduaren 31n. San Roke basiliza txiki geratu zen eguerdi partean: txistorra pintxoak, salda edota ardoa eskatzeko ilarak sortu ziren.



TXINTXARRI

Hitzartu parte hartzeko prozesua, hitza hartzeko

Hondakinen kudeaketa plan bat adosteko proposamena luzatu zuten prozesuaren bidez, herritarrek erabakietan parte hartzera bultzatzeko: "Ezin dugu utzi agintariek adarra jo diezaguten". Erraustegia geldiarazteko esperantza berretsi zuten

Txintxarri

Ez dute amore eman. Erraustegia egiteko lanak hasiak ziren dagoeneko, eta askorentzat aurreikuspen ezkorrenak bete ziren. Haatik, gizarte zibilak ez du etsi, eta beste bide bat urratzen hasi zen hondakinen kudeaketa osasuntsu eta bidezkoago bat lortzeko helburuz. Urtarrilean Hitzartu aurkeztu zuten Lasarte-Orian; 2017-2030 urteetarako hondakinen plan oso bat adosteko herritarren parte hartze prozesua da. GuraSOS elkarteak bultzatu du egitasmoa. "Ez gaude bakarrik, jende asko dago gure atzean. Gizartearen gehiengo hori aktibatzea falta da".



Hitzarturen aurkezpena, Ttakunenean. TXINTXARRI

Elkartasuna Sahararekin

Sahararekiko elkartasun handia dute Lasarte-Oriako herritarrek. Herriko merkatalguneetan aparkatu zuen urtarrilean Sahararen Aldeko Euskal Karabanak; sahararrentzat elikagaiak eta garbitasun produktuak biltzen ibili ziren. Herritar ugari parte hartu zuten, eta euren erosketa saskietatik hainbat produktu atera zituzten karabanarentzako kaxetan sartzeko.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Harrera beroa Errege Magoei

Eguraldi txarra egin arren, haur eta gazte ugari egin zieten harrera Errege Magoei, Lasarte-Orian barrena egin zuten kabalgatan. Ama Brigidatarren komentuan geldialdia egin, eta udaletxeko balkoira atera ziren.



TXINTXARRI

Ikasleen danborren burrunba

San Sebastian egunera itxaron gabe, bezperan astindu zituzten danborrak herriko ikastetxeetako ikasle eta irakasleek. Aurretik entseatzeko ibili ziren, gogotsu, eta urtarrilaren 19an erakutsi zuten euren trebezia, burrunba artean danborrak astintzen.

2019 zoriontsua opa dizuegu!

AZPEITIA

Blas de Lezo, 1
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361870
Fax 943 362179
mueblesazpeitia@gmail.com
www.mueblesazpeitia.com

LUNA PULIDA
CRISTALERIA

ANORGA TXIKI S.L KRISTALDEGIA

2019 zoriontsua izan dezazuela!

- komertzial instalazioak • beira bikoitza
- segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA / 943 37 17 33 - 610 45 93 45
www.cristaleriaanorgatxiki.com / anorgatxiki@gmail.com

2019 zoriontsua opa dizuegu!

Turkia

IRTEERA 2019ko ekaina
Nooak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

NOOAA BIDAIAK

T.: 943 373 613 • info@nooa.eus • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



TXINTXARRI



TXINTXARRI



TXINTXARRI



HANDIA

Goya sari 'Handia', Herasentzat

David Heras lasarteoriatarrek Goya saria eskuratu zuen, *Handia* filmean egindako efektu bereziengatik. *Verónica* filmean egindako efektuengatik ere izendatua zegoen herritarra. "Aurreko izendapenetan ez nuen saririk eskuratu, eta aurren, tokatzen zitzaidala pentsatzen nuen arren, nire izena entzun arte ez nuen sinetsi", kontatu zion TXINTXARRI-ri.



TXINTXARRI

Dispertsioaren biktimak gogoan

Otsailaren 28an hamabost urte bete ziren Juankar Balerdi preso zegoela, haren senideek bisita egitera joan eta istripua izan zutela; Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi hil ziren. Askatasunaren parkean bi herritarrak omendu eta dispertsioaren biktimak errekonozitzeko eskatu zieten erakunde publikoei.

Denen gusturako inauteriak

Inauteriez gozatu zuten lasarteoriatarrek. Otsaileko lehen astean euskal inauteriak ospatu zituzten, xomorroak, hartza, sua eta beste ikurrekin jolasten. Hurrengo asteburuan inauteriak izan ziren, eta lanbideak hartu zituzten ardatz. Umeek ere izan zuten ondo pasatzeko aukera, *Inahaldunak* ekimenean.



Jaigune

Familia eta lagun lasarteoriatarrei,
Eguberri onak opa dizkizuegu eta
2019. urtean zuen ametsak bete
daitezela!

URTE BERRI ON!

Beko kale bidea 1, 2. solairua • LASARTE-ORIA



Elurteak zurituta

Iragarrita zegoen, baina inork ez zuen uste horrenbestekoa izango zenik. Otsailaren 28an Lasarte-Oria zuri-zuri esnatu zen, elurteak jota. Umeek eskolarik ez, eta jolasean igaro zuten goiza. Askok ere aprobetxatu zuten eskiak hartu eta kalera ateratzeko. Baina arazo ugari sortu zituen errepidean, eta ordu batzuk blokeatuta egon zen herria.



TXINTXARRI

Michelin II: Lidl, Norauto, B&B hotela eta gasolindegia

Udalak martxan jarri zuen Michelin II gunea, herriaren aldirietan supermerkatu handi bat eta hotela eraikitzeko

Txintxarri

Michelin II gunea eraikitzeko lehen urratsa eman zuen Lasarte-Oriako Udalak. Jesus Zaballos alkateak elkarlanerako hitzarmena sinatu zuen Plainca enpresarekin. Hiru izardun B&B kateko hotela, prezio baxuko gasolindegia, Lidl supermerkatua eta mekanikako Norauto etxeak osatuko dute gunea. Futbol zelaiaren ondoan eraikiko dute, herriaren aldirietan. 2019. urterako amaitua egotea espero dute. "Ehun lasarteoriatar kontratatuko dituzte".



Alkatea, sustatzaileekin. TXINTXARRI

Literaturaren eta bertsoen frangantziak elkartzeko

Literatura Txokoak bertso afari literarioa egin zuen, Ane Labaka, Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdirekin

Txintxarri

Xirimiri elkartearen elkartzeko ziren Ane Labaka, Nerea Ibarzabal eta Uxue Alberdi. Lander Garro gai jartzaile zutela, literatura eta bertsolaritza uztartu zituzten. Urtero antolatzen du Literatur Txokoak ekimena, eta ordu hartan ere lepo bete zuten Xirimiri elkartearen.

Ehun bat ikus-entzule bildu ziren elkartearen, eta afaria dastatu ostean, izan zuten aukera literaturaren eta bertsolaritzaren ezkontzak sortzen duen magia gozatzeko.



Labaka, irudiaren erdian. TXINTXARRI



Elkarteko kideak. TXINTXARRI

Extremadurako ohiturak, 40 urtez

1978ko otsailaren 17an hasi ziren euren Extremadurako ohiturak ekartzen Lasarte-Oriara. 40 urte bete ditu aurten Extremadura etxeak, eta bertako gastronomia dastatzen ospatu zuten. Txerria ere hil zuten, eta harekin odolkiak eta hestebeteak egin zituzten Ama Guadalupeko elkartearen. Baita jan ere ondoren.



Manifestazioa, herrigunean. TXINTXARRI

Goi tentsioko linearen aurka ozen egiteko

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak deituta, Lasarte-Oriako eta inguruko herrietako hainbat biztanle elkartzeko Okendo plazan, erraustegiari eta hura energiaren elikatze gaitzentsioko lineari ezetz esateko. Aurretik, proiektuari buruzko informazioa jaso zuten Azkorten.



INTZA ELKARTEA

2019 zoriontsua
opa dizuegu!

Sagardotegi kalea, LASARTE-ORIA - Tel: 943 36 15 34



Lasarte-Oriako emakumeek ere, planto

Mugimendu Feministak Euskal Herrian deitutako bi orduko lanuzteak oihartzun handia izan zuen Lasarte-Orian. Taberna eta dendak itxi zituzten, eta planto egin zuten ikastetxeetan eta zerbitzu publikoetan. Okendon elkarretaratzea egin zuten

Txintxarri

Lehenengo aldia zen gisa horretako greba baten deialdia egiten zela Euskal Herrian. Mugimendu Feministak lau orduko bi lanuzte egitea proposatu zuen martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunean. Eztabaida handia izan zen greba egunaren harira, baina zalantzarik ez da arrakasta izan zuela. Lasarte-Orian ere izan zuen eragina deialdiak. Okendo plaza bete zen eguerdiko kontzentrazioan.

Leiho eta erakusleho askotan ikusi ziren amantala urratuak eta zapi moreak. Taberna askok ireki zuten, baina gizonezkoak zeuden zerbitzuetan. Emakume bakoitzak ahal edo nahi izan zuen neurrian egin zuen greba, baina denen artean aldarrikapena argia izan zen: bada garaia benetako parekidetasuna lortzeko.

Nabaria egin zen greba eguna herrian. Baita ikastetxeetan ere. Landaberri ikastola eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxea martxan izan ziren, baina lanuzteak zenbait zerbitzutan eragin zuen. Esaterako, jangelan.

Oriarte Bigarren Hezkuntzako Institutuan, irakasleei dagokionez, jarraipena handia izan zen, batez ere, Landaberri

eraikinean; gutxieneko zerbitzuak izan ziren. Gainera, beste ikastetxeetan bezala, gazteek ez zuten jangelarik izan.

Andre Joakina Enea haur eskolan gutxieneko zerbitzuak ezarri ziren 11:00etatik 15:00etarako lanuztearekin. Izan ere, langile gehienek bat egin zuten. Lasarte-Oriako udal zinegotzi emakumeek ere bat egin zuten lanuztearekin.

Udalak, deialdiarekin bat

Lasarte-Orian ere askotariko ekintzak antolatu zituen udalak, eta Euskal Herriko Mugimendu Feministaren deialdiarekin bat egin zuten.

Gehiengo sindikalaren babes ere jaso zuen deialdiak.

AMUGE Euskadiko emakume ijitoen elkarteko kide Tamara Claveriak feminismoaz hitz egin zuen, eta aurrera eramaten ari diren lanketa ijitoen begiradatik kontaktu. Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketa ere antolatu zuen udalak; hainbat gaztetxok parte hartu zuten. Maren Urkizu gazteak irabazi zuen. Hurrengo urtekoa iragartzeko bere afixa erabiliko dute.

Elkarretaratzea ere egin zuten Okendon, hamabost minutuz. Halere, askok Donostiako elkarretaratze handira jo zuten.



Lasarte-Oriako udal zinegotzi emakumeek ere planto egin zuten. TXINTXARRI



Ikastetxeek bat egin zuten lanuzte deialdiarekin. TXINTXARRI



Amantala urratuak jarri zituzten herritarrek balkoietan. TXINTXARRI



Martxoaren 8a iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak. TXINTXARRI

Erakustaldia European

Europako Retro Dantza txapelketan lehiatu zuen Amaia Gonzalez Caballero, eta lau garaikur ekarri bueltan Lasarte-Oriara. Tangoan, pasodoblean eta saltsan irabazi zuen. Horrez gain, Jose Mari Orbegozo dantza bikotekidearekin batera, Espainiako Dantza Konbinatuko txapelduna izan zen. Entseatzeko denborarik ez zuen izan, baina erakustaldia eman zuen.



AMAIA GONZALEZ CABALLERO

Auzotarren maitasuna jaso zuten Bagri liburudendako jabeek

Duela 47 urte ireki zuten Bagri liburudenda Juan Antonio Barrenetxea eta Kontxi Grijalba herritarrek. Oso bikote maitatua da Sasoeta auzoan, martxo hasieran argi geratu zenez. Urrezko ezteiak ospatu zituzten liburudendako jabeek, eta festa erraldoia antolatu zuten auzotarrek. Alaba Edurnek darama orain negozioa.



Bagri liburudenda. PEDRO MARTINEZ

Herriko pentsiodunak, protesten lehen lerroan

Pentsio duinak eskatzeko aldarriak urte hasieran iritsi ziren Lasarte-Oriara. Protesten lehen lerroan jarri ziren Lasarte-Oriako pentsiodunak ere: uste dute aldatu egin behar dela pentsioen sistema publikoa. Gazteek ere protestetara batzea nahi dute

Txintxarri

Astelehenero elkartzen dira Lasarte-Oriako pentsiodunak protesta egiteko, Okendo plazan. Adarra jo dietela uste dute, eta pentsioen sistema publikoa aldatu behar dela. 2018 hasieran erabaki zuten Euskal Herritik eta Espainiatik zetozen aldarriekin bat egitea, eta kalera irtetea. Koordinakunde bat sortu zuten herri mailan, eta segitzen dute protesta ekintzak antolatzen. Gazteei dei egiten diete horietan parte hartzera. Aurreneko ekimenetan biltzen ziren dozena horiek biderkatzen hasi ziren, parte hartzaileak ehunka kontatzen hasteraino.



Hainbat pentsiodun, herrian egindako manifestazio batean. TXINTXARRI

Ondarea erakusten

Mende erdi bete du Erketz EDT dantza taldeak aurten. Hainbat ekintza egin dituzte urteurren berezi hori ospatzeko. 50 urte, 100 jantzi erakusketa egin zuten martxoan. Euskal Herri osoko dantza jantziak soinean, dantzari eta herritarrak atera ziren Manuel Lekuona kultur etxeko auditoriora, desfilatzera. Lasarte-Oriako hainbat eragilek ere parte hartu zuten ekimenean.



TXINTXARRI



LASARTE-ORIA TRAIL

Mendiaz gozaten igandeetan

Igandea noiz iritsiko zain egoten dira Lasarte-Oria Trail taldeko kideak. Asteko azken egunetan geratzen dira, goizeko zortzietan, lagunarteko giroan mendiaz gozatzeko. Bazkari baten bueltan hasi ziren ekimen hori sortzeari buruz, eta martxoan bihurtu zen errealitate. Kuadrilla ederra dira honezkerok, baina nahiko lukete are lasarteoriatar gehiago animatzea.



OSTADAR IPAR MARTXA

Makilei eragiten, Menorcan

Menorcara joan ziren Ostadar Ipar Martxako kideak pasa den Aste Santuan. Ez ziren atsedean hartzera joan, ordea: makilei egunero eragin zieten, Cami de Cavals bideko ibilbide ugari egiten. Sei eguneko bidaia egin zuten, Pazko Astean. Asteazkenetan elkartzen dira kideak, herrian.



UDABERRI elkarteak

5 bazkide berrirentzat tokia dago!
Informatu zaitez!

2019 zoriontsua
opa dizuegu!

Andatza plaza z/g, behea - Tel. 943 37 19 83 - LASARTE-ORIA





Eli Azpillaga eta Unai Fernandez de Betoño, azalpenak ematen. TXINTXARRI

Merkataritza guneak hedatzeko presaren zergatiak azaltzen

Lurraldeko plan sektorial berria eraiki bitarteko epea ari dira baliatzen saltoki handiak, gune gehiago eraikitzeko

Txintxarri

Merkataritza gune handien hazkunde azkarragatik kezkatuta, hitzaldia antolatu zuen Lasarte-Oriako Talde Aktibistak. Unai Fernandez de Betoño arkitektoak eta EHUko irakasleak eta Eli Azpillaga Belartza 2 Gelditu plataformako kideak eman zituzten multinazional horien hedapena ulertzeko giltzarriak.

Azaldu zuten lege kontua dela dena: Eusko Jaurlaritzak onartua du txosten batzuetan saltoki handiak kaltegarriak direla inguruko herrietako ekonomiarentzat. Lurraldeko

Sektore Planak ezartzen zituen horrelakoak eraikitzeko muga batzuk, baina multinazional handiek auzitara jo eta irabazi egin zuten. Europako Batasunak dio jarduera ekonomiko bati ezin zaizkiola mugak jarri soilik arrazoi ekonomikoengatik.

Lurraldeko Sektore Plan berria aurkeztu bitartean, "lege hutsune" moduko bat dagoela esplikatu zuten bi adituek, eta hori ari direla baliatzen merkataritza gune handiak. Lasarte-Oria inguruan Mercadona eta McDonald's ireki dituzte, eta beste zenbait proiektu abiatu.



TXINTXARRI

Udaberriko kolore eta usainak

Arrosak, eguzkiloreak, bitxiloreak, ukenduak, etxean egindako ezitia...eta eguraldi eguzkitsua. Urteko bigarren urtaroko kolore eta usainak ekarri zituzten Okendo plazara udalak eta Behemendik antolatutako VI. Udaberri Azokak. Hamabost postutako produktuak ikusi eta erosi zituzten herritarrek. Bien bitartean, jolasetan eta tailerretan aritu ziren txikiak.



Erketz EDTko dantzariak. TXINTXARRI

Dantza: eromenaren aurkako sendagaia Okendo plazan

Ariketa fisiko soil bat baino askoz gehiago da dantza. Musikaz lagunduta, sentimenduak adierazteko tresna izan daiteke. Baita nazioen arteko mugak ezabatzeko ere. Eta eromenaren aurkako sendagaia. Ariketa hori egin zuten lasarteoriarrek Okendo plazan, dantzaren nazioarteko eguna ospatzeko.

Zambra taldearen sevillanak eta buleriak; Erketzen makil eta alpargata dantza; Kukukaren gipuzkoarrak, arrantzaleak eta fandangoa; eta Saharako dantza ere bai. Ordubete pasatxo dantzarien mugimenduek hartu zuten plaza. Koreografo batek idatzitako manifestua irakurri zuten gero Landaberriko Guraso Elkarteke Miren Zalduak.

Osasuna ardatz hartuta, herritarrentzat jardunaldiak

Osasun Jardunaldiak antolatu zituen Aterpea merkatarien elkarteak, bigarrenaz. Herritarrek eskaintza zabala izan zuten osasunaren inguruko jakintzak eskuratzeko: zorriei aurre hartzeko aholkuak, hortzetako protezi kengarriak nola zaindu, eta gorputzeko zimurrak nola tratatu, besteak beste. Kultur etxean izan ziren hitzaldiak.



Herritar bat, informatzen. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Osasuna bermatzeko deia

Errausketaren Aurkako Mugimenduak deituta, hainbat herritar elkartu ziren osasun zentroan, nazioartean erraustegiei buruz argitaratutako azken berriak zirela eta. Gipuzkoako hainbat herri egin zuten bat deialdiarekin, Lasarte-Oriak barne. Iñaki Errazkini eta Ainhoa Intxaurrendietari elkartasuna adierazteko ere baliatu zuten mobilizazio hori.



TXINTXARRI

Sevillatik Sasoetara

Sasoeta auzoa koloreztatu zuen Apirilko Feriak. Sasoeta Sasoian auzo elkartari eta merkatariei bururatu zitzairen ideia. Udalaren eta Semblante Andaluz elkartearen laguntzarekin, festa hori ospatu zuten lehenengo aldiz Lasarte-Orian. Jaizkibel plaza izan zen erdigunea, eta dantza, musika, janaria, edaria eta andaluziar jantziak ospakizunaren osagaiak. Ostiral arratsalde hasi zen feria, baina larunbata izan zen egun handia: Semblante Andaluzeko dantza taldeek emanaldiak eskaini zituzten. Produktu andaluziarrak dastatu zituzten herritarrek.

18 urtez azpiko Beltzak, Euskadiko txapeldun

Durango-Elorrio taldeari irabazi zion errugbiko final handia Babyauto Zarautz-Beltzakek: 25-19

Txintxarri

Epe luzera begirako lanek fruituak ematen jarraitzen dute. Duela zenbait urte sortu zuten eskola Beltzak errugbi taldeak, eta, gazteen artean zaletasuna pizteaz gain, kirol emaitza bikainak ere lortzen dituzte denboraldiz denboraldi. Pasa den denboraldiko lorpenetako bat izan zen 18 urtez azpikoek irabazitako Euskal Liga.

Durango-Elorriorekin neurtu zituzten indarrak final handian. Gogorra izan zen neurketa, eta hiru zutoinetara egindako jaurtiketek erabaki zuten partida eta txapelketa. Finago aritu ziren Babyauto Zarautz-Beltzak taldeko jokalariek, eta, 25-19 irabazita, Euskal Liga irabazi zuten. Lasarte-Oriako harrobiko zazpi jokalaririk ziren norgehiagoka horretan. Duela pare bat urte 16 urtez azpiko liga irabazi zuten.



Irabazleetako batzuk. BELTZAK ZRT

Zarauzko Asti zelaian jokatu zuten finala, etxeko taldea hobeto sailkatu zelako beste finalista baino. Harmailetan berez 400 pertsona kabitzen dira, baina 700 inguru elkartu ziren, zale asko eta asko zelai inguruan aritu zirelako animatzen.



Txirrindulariak, irteeran. TXINTXARRI

BTT trabesiako pedalkada bakoitzaz gozaten

Ia bostehun txirrindulari ibili ziren Andatza mendian barrena, BTT trabesiaren pedalkada bakoitzaz gozaten. Antonio Mercero gune atzealdetik hasi zuten proba, eta Okendo plazan bukatu. Bien bitartean, Andatzako eta inguruetakoa bideak zeharkatu zituzten bizikleta gainean. Bi ibilbide izan zituzten aukeran parte hartzaileek: 38 kilometroko luzea, eta 28ko motza.

Ainhoa Martin igerilari gaztea, Espainiako txapeldun Galizian


Urrea kolkoratu zuen herriko igerilariak Pontevedran; 100 metro bular proban brontzea irabazi zuen

Txintxarri

Buruntzaldea IKT taldetik Espainiako txapelketara joan ziren hiru igerilariak maila paregabea erakutsi zuten Pontevedran. Berezikoki ongi aritu zen Ainhoa Martin: urrea kolkoratu zuen 200 metro bular proban, eta brontzea 100ekoan. Inork baino azkarrago egin zuen igeri aurreneko proban, eta, 02:36.32ko denborarekin, txapelketako errekorra ezarri zuen. Taldeko eta Euskadiko errekorrak ere birrindu zituen.

Ainhoaren ahizpa Leire eta Paula Sevillano taldekideek ere txapelketa bikaina osatu zuten, euren marka pertsonalak onduz.

Nahia Zudairek lau errekor berri Espainiako Igeriketa Egokituko txapelketan lehiatu zen Nahia Zudaire taldekidea, eta erabat nagusi izan zen: lau marka berri



Martin, podiumean. BURUNTZALDEA IKT

ezarri, eta Europako txapelketan aritzeko hiru txartel poltsikoratu zituzten: 50, 100 eta 400 metro libreetan aritzekoak, hain justu.

Mikel Esnal, berriz, Espainiako Udaberriko absolutu txapelketan aritu zen, eta marka pertsonala hobetzea lortu zuen.

Jose Martijaren ondareari jarraipena emateko gunea

Entrenatzaile izan bitartean irakatsi zuen guztiari segida emateko, Jose Martija gunea inauguratu zuten Sasoetan

Txintxarri

Urteak eta urteak eman zituen Jose Martija zenak entrenatzaile lanetan. Lasarte-Oriako haur askori irakatsi zien futboleko jokatzeko. Haren ondareari segida emateko asmoz, garai horietan

bere ikasle izandakoek Jose Martija kirol gunea inauguratu zuten Sasoeta auzoko Uzturre plazan. Gaztetxoentzako futbol txapelketa antolatuz estreinatu zuten espazio hori. Familiak gogo onez hartu zuten ekimena,

eta parte hartu zuen irekiera ekitaldian: Nieves Lopez de Luzuriaga alargunak egin zuen ohorezko satea. Presente egon ziren Iñaki anaia eta Josu eta Mikel semeak ere, besteak beste. Familia argazkia atera zuten gero, hunkituta eta oso pozik. Ez zen gutxiagorako izan.

Txapelketa eta gero, benjamin kategoriako Real eta Eibar aritu ziren Jose Martija gunean. Partida hori bukatzean, askari goxoa janez berriro zituzten indarrak jokalariek.



Jose Martija gunearen inaugurazio eguneko familia argazkia. TXINTXARRI

Garcia

AUTOBUSAK

Nafarroa etorbidea 32-2.A
(Leku-Eder etxea) - ZARAUTZ

Tel: 609 479 478

info@garciabus.com - www.garciabus.com



Urte berri zoriontsua
izan dezazuela!

• Edozein eratako bidaiak egiteko zerbitzu aproposak

• Bestelako zerbitzuak

Keinu, puntu eta emozioak

Esperimentua primeran atera zitzaizen antolatzaileei. Bertsolaritza antzerkigintzarekin uztartzea erabaki, eta emanaldi biribila eskaini zuten parte hartzaile guztiek. Kantuan Ane Labaka, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña aritu ziren. Antzetzear, berriz, Kukuka eskolako hainbat talde arduratu ziren. Lepo bete zuten kultur etxea herritarrek.



TXINTXARRI



TXINTXARRI

Azken saioa, Harkaitz Canorekin

Ikasturteko azken saioa egin zuten Irakurle Txokoko kideek, kultur etxean. Uxue Alberdik gidatu zuen saioa, ohi bezala. Hasi eta ordu erdi ingurura etorri zen Harkaitz Cano idazle lasarteoriatarra, ikasturteko azken gonbidatua. Eleberrri baten sorkuntza prozesuaz aritu ziren Canorekin; sortzeko uanean dituen zailtasun eta motibazioak partekatu zituen, besteak beste.

Herriko bizitzari eusteko aldarria

Azken 25 urteetan herriko hainbat pertsona eta eragileren laguntza jaso du Aterpea merkatarien elkarteak. Horiei eskertuz iragarri zituen urteurren berezi horretako ospakizunak. Kultur etxeko hitzaldi aretoan egin zuten ekitaldia. Ez zen bakarria izan, hilabete bukaeran Udaberri Festa ospatu zutelako Okendo plazan, giro ederrean, herrian zehar ibili zen trena eta guzti.



TXINTXARRI

Maratoitik, Euskaraldira

Duela bi urteko Euskararen Maratoiaren ostean erein zuten herritarrek hazia. Orduko ariketa sozialaren tankerako bat aurkeztu zuten hamaikakoak: Euskaraldia. Lasarte-Orian egindako ariketa soziala Euskal Herri osora hedatu, eta hainbat herri eta hirik jakinarazi zuten parte hartuko zutela. Okendo plazan egin zuten aurkezpen koloretsua.



TXINTXARRI

Dantzarien asteburua

Eguraldi txarrari dantza eginez erantzun zioten Erketz EDTko kide helduek zein gazteek. Dantzari eta Dantzari Txiki egunak ospatu zituzten, Euskal Herri osotik etorritako beste hainbat talderekin: Goizaldi (Donostia), Indarra (Gasteiz), Urki (Andoain), Makaia (Faltzes), Ereintza (Erreterria) eta Lurra (Urretxu). Hamar minutuz aritu ziren gazteen taldeak.



TXINTXARRI

Udaltop, hamargarrenez

Euskal Herriko udaletako Euskara Zerbitzuen arteko topaketak inoizko harrera onena izan zuten, eta Manuel Lekuonako areto nagusia bete zuten bi egunetan. 270 pertsona inguru bildu ziren Lasarte-Orian. Besteak beste, Euskaraldiaren inguruko informazioa jaso zuten ikus-entzuleek. Duela hamar urte hasi ziren topaketa horiek antolatzen.



TXINTXARRI



TXINTXARRI



TXINTXARRI



Herritarrek, Gune Irekian. TXINTXARRI

Hitzarturen Gune Irekia, Landaberri ikastolatik Gipuzkoa osora

Ehundik gora lasarteoriarrek hartu zuten parte Hitzartuk antolatutako Gune Irekian. Landaberri ikastolan elkartu, eta hondakinen kudeaketaren gaia izan zuten hizpide, ideia argi batekin: inoiz ez da berandu hitz egiteko. Goiz eta arratsalde aritu ziren lanean; arratsaldean 40 proposamen bildu zituzten, etorkizunean lantzeko.

Antonio Mercerori azken agurra

Antonio Mercero *Antxon* zinemagileari omenaldia egin zion Lasarte-Oriak. Politikako ordezkarien, familiaren eta herritarren berotasuna jaso zuen azken agurrean. Brigitarren komentuan meza ospatu zuten goizean, eta omenaldi beroa egin arratsaldean, kultur etxean. Ez zen pertsona bakar bat gehiago ere kabitzen auditorioan. Ez zen gutxiagorako.



TXINTXARRI

Azkorteko ermita, jendez lepo

Eguraldi paregabea lagun, herritar ugari animatu ziren Azkortera igotzera, Ttakun KEk antolatutako erromeriaz gozatzeko. Meza, herri kirolak, hamaiketakoa, musika, erromeria, dantza...ez zen ezer falta izan. Aizkolariek eta harrijasotzaileek elkartu zuten jende gehien ermita inguruan. Aizkorarekin Mugertza anaiak aritu ziren; harriekin, Izeta IV.a eta Urta.

Denboraldi amaiera ospatzen

Ostadar SKT klubak 35 urte daramatza kirola sustatzearen alde lanean. Ehunka lasarteoriar aritzen dira elkartearen sailetan: ipar martxa eta kirol egokitua dira batu diren azkenak. 2017-2018 denboraldiari festa giroan esan zioten agur, Villa Mirentxu alboko trinketean. Sail bakoitzeko arduradunek kirolari jatorrenei eman zizkieten sariak.



2019 zoriontsua
opa dizuegu!

Kale Nagusia 40
Tel: 943 36 39 64
LASARTE-ORIA

SEMBLANTE ANDALUZ

*Gure Rocio-ko Ama
Birjinaren kofradiak
2019 zoriontsua opa
dizue*

Golf plaza 2, Lasarte-Oria - Tel. 943 36 36 99

San Joan sua piztuz, udari ongietorria

Lasarteoriatarrek urteko gauza txarrak eta eskolako apunteak bota zituzten San Joan sutara, Andatza plazan. Sua piztu aurretik dantzan aritu ziren Erketz EDTko dantzariak, Zero-Sette akordeoi taldearen doinu eta Alboka abesbatzaren ahotsen laguntzarekin

Txintxarri

Sanpedroen aurrekari gisara, hainbat ekintza egin zituzten lasarteoriatarrek. San Joan sua da berezietako bat, egun horretan egiten baitzaio ongietorria udari. Azkeneko urteetan bezala, Andatza plazan ospatu zuten egun hori. Sua piztu orduko, urteko gauza txarrak eta eskolako apunte mordoia jaurti zituzten herritarrek garretara, bertan erre zitezten.

Ospakizuna ez da Andatza plazan hasten. Sua piztu baino ordubete lehenago elkartzten dira Erketz EDTko dantzariak udaletxe zaharrean, kalejiran joateko plazara. Udal korporazioko hainbat zinegotzik ere parte hartzen dute. Aurten ere hala egin zuten.

Andatzara iristean, San Joan zortzikoa, agurra, soka-dantza eta beste doinu batzuk dantzatu zituzten. Zero-Sette akordeoi orkestra eta Alboka abesbatza arduratu ziren dantzei musika eta tonua jartzeaz. Bukaera aldera zenbait herritarrek ere dantzatu zuten: fandangoa, arin-arina eta kalejira erraldoia.

Alkateak gaueko hamarrak aldera piztu zuen San Joan sua. Gauza txarrak erre, eta jaietarako motorrak berotu zituen herriak.



Erketz, Zero-Sette eta Albokako kideak, elkarrekin, emanaldia eta gero. TXINTXARRI



San Joan sua piztuz egin zion ongietorria Lasarte-Oriak udari. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Bazkaria, eta denboraldi amaiera

Zubietako Irigoien erretegia bapoz bazkalduz itxi zuen 2017-2018 sasoiako LOKE kirol elkarteak. Kirolari, entrenatzaile eta ahaide, ehun pertsona inguru elkartu ziren, giro ederrean. Alor bakoitzeko arduradunek sariak eman zizkieten denboraldiko kirolari nabarmenenei. Xabier Gonzalez tenis irakasle izan zenaren alaba Andreak aitortza hunkigarria jaso zuen.



M. KORTAJARENA

Debuta eta bi garaipen Aian

Asteburua borobila izan zen Lasarte-Oriako rally pilotuentzat. Pablo Mugak eta Iñaki Racamondek garaipena eskuratu zuten euren kategoriatan. Mikel Kortajarena gazteak debuta egin zuen Aiako igoeran, eta meritu handiko bigarren postua eskuratu. Hurrengo hilabeteetan lehiatzen jarraitu zuten, kirol horrek eskaintzen dien adrenalina gozatzen.

Giza katea, mila katebegi lasarteoriatarrekin

Herritarrek Gure Esku Dago-ren deia erantzun eta Bilbo, Donostia eta Gasteiz lotu zituen giza katean parte hartu zuten

Txintxarri

Mila lasarteoriatar baino gehiagok parte hartu zuten Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituen giza katean. Bederatzigarren eta hamargarren kilometroak aise bete zituzten, eguraldi ezin hobea lagun. Giza

katearen gunera abiatu aurretik, Okendo plazan elkartu eta talde argazki erraldoia atera zuten. Txistulariek girotu zuten Belartza gunerako bidea.

Ekitaldia eta gero egindako balorazioan, Gure Esku Dago-ko

kideek nabarmendu zuten egun bakar bateko "mobilizazio jendetsuena" izan zela egun horretakoa. EAEko hiru hiriburuak lotu zituen giza katean 175.000 pertsonak parte hartu zuten.

"Txukun" osatu zituzten herritarrek bi kilometroak, Lasarte-Oriako Gure Esku Dago taldeko kideak adierazi zuten. "Tarte batzuetan gainezka, beste batzuetan larrixeago, itzal bila, eskubira, ezkerrera... Ederki ibili ziren herritarrek".



Giza katera abiatu aurretik ateratako talde argazkia. TXINTXARRI

Ikusi, entzun, usaindu eta dastatzeko jaiak

Teresa sorgina auzora jaistearekin batera lehertu zen festa Zabaletan. Asteburu osoan ez ziren geratu, hamaika ekintza, emanaldi eta jolas prestatu baitzituzten gazte, heldu eta adineko herritarrentzat. Datorren urteko jaiak prestatzen hasiak dira honezkero

Txintxarri

Sorpresaz betetako jaiak izan ohi dira Zabaletakoak. Aurtengoak ez dira atzean geratu, eta, besteak beste, kanta berri bat aurkeztu zuten auzotarrek. Abestiaren leloak diotenari men eginez, festak ikusi, entzun, usaindu eta dastatu egin zituzten.

Ostiral arratsaldean jaitsi zen Teresa sorgina Antonio Blas plazara. Jende andana zeukan zain ordurako, jaiei ekiteko irrikaz. Pregoia eta txupinaren ostean, sorgin dantza egin zuten plazan bertan. Honezkero ezagun egin den *Gas, gas* kantaren koreografia eta abesti berriarena ere dantzatu zituzten.

Parranderok ajeari aurre egin bitartean, VI. Sorgin Krosean lasterka egin zuten kirolari askok. Andoni Illarramendi eta Anabel Eleno izan ziren azkarrenak. Arratsaldeko ekintza nabarmenena bertso saioa izan zen. Gauean, suziak eskuetan hartu, eta akelarre ikusgarria egin zuten auzotarrek plazan.

Igandean ere, kirola protagonista: proba mistoan aritu ziren hainbat auzotar. Ondoren, sega: Julen Gabirondo eta Jon Otaegik erakustaldi bikaina eman zuten. Imanol Jimenez zenaren familiak omenaldi hunkigarria jaso zuen gero, oholtzan.



Jendetza zegoen Teresa sorginaren zain Antonio Blas plazan. TXINTXARRI



Auzotarrek akelarre ikusgarria egin zuten larunbat gauean. TXINTXARRI

Hamabostaldia ospatzen, hamaseigarren urtez

Kukuka Antzerki eta Dantza eskolako kideek urtean zehar entseatutako lanak oholztaratu zituzten

Txintxarri

Kalejira koloretsu batekin hasi zituzten antzerki eta dantza hamabostaldiko ospakizunak, Zabaletako jaietan. Antonio Blas plazan elkartu, eta auzoan zehar ibili ziren kalejiran aurrena, herrira jaisteko gero.

Kukukan ari diren herritar gazte zein helduek urtean zehar entseatutako lanak oholztaratu zituzten Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian, lehen hamabostaldian.



Kukukako kideak, desfilatzen. TXINTXARRI

Gaztetxoak aurrena

Landaberriko eta Sasoetako LH 1, 2 eta 3. mailako antzezle eta dantzari gazteek ireki zuten emanaldi sorta. *Sei anaiak*, *Arratsalde bat zineman*, *Zirkuz marabillux!* eta *Zinema Sesion* lanak taularatu zituzten, besteak beste.


Aste horretan zehar egin zituzten antzerki emanaldi

gehiago: *Mafia* eta *Aupa Etxebeste*, esate baterako.

Ostegun arratsaldean kultur etxeko oholtza utzi eta kalera irten ziren Kukukako hainbat kide. Antzerki eta dantza emanaldiak egin zituzten pintxoteak iraun bitartean.

Gipuzkoako txapeldunak

Triatloian, esprint modalitatean, parte-hartzaileek 750 metro egin behar dituzte igerian, hogei kilometro bizikletan eta beste hamar korrika. Pasai Donibanen jokatu zen Gipuzkoako txapelketa, eta emaitza bikainak lortu zituzten herritarrek. Yepa! taldeko Pili Bodegas garaile izan zen beteroan; Zumeatarrako kide Aimar Sukunza, berriz, kadeteetan.



KARMELE G.

DANI karrozeria

Trebeak gara kolpe handiak konpontzen

● **Kabina labeduna**

● **Txapak zuzentzeko oinarri unibertsala**

● **Tapizatuen garbiketa**



2019 zoriontsua opa dizuegu!



Zirkuitu ibilbidea 12
20160 · LASARTE-ORIA
Tel. 943 37 14 40
Mugikorra: 608 39 18 85
carrocierasdani@carrocierasdani.com
www.carrocierasdani.com



Jendetza elkartu zen Okendo plazan, helduen txupinazoaz gozatzeko. TXINTXARRI

Hurrengo urteko sanpedroen zain

Ekaineko azken asteazkenetik igandera, hamaika ekintza izan ziren herriko kale eta plazetan. Umore ona izan zen nagusi; egunsentiz eta gauez, musikak eta algarak hartu zuten herria. Urte erdi falta da 2019ko sanpedroak Lasarte-Oriara iristeko

Txintxarri

Eguraldia izan ohi da festei kolore apur bat kentzen dien faktorea. Aurtengo sanpedroetako egun guztiak ez dira eguzkitsuak izan, baina inor ez dago kezatzeko moduan, nahiko ondo portatu zelako. Eguzki, laino zein euri, herritar ugari animatu ziren egitarau ofizialeko zein Sorgin Jaietako ekintzetan parte hartzera. Txupinek eta heldu zein gaztetxoek danborradek herriko kaleak eta Okendo plaza bete zituzten.

Gaueko kontzertuak ikusteko ere txiki geratu zen Okendo. Vendetta, Los Caligaris, La Basuren rap erritmoak...eta Su Ta Gar. Herriko gazteek urte luzez eskatu dute heavy metal talde hori herrira ekartzeko. Aurten izan dute aukera. Ederki gozatu zuten Aitor Gorosabel eta enparauen abesti mitikoekin.

Parranderoenak izan ziren gauak, eta familienak goizak. Gaztetxoek, bereziki: egunero egin zuten lasterka herrian barrena, buruhandietatik ihesi, eta erraldoiekin dantzan.

Festak hasi aurretik badirudi bost egun asko direla, ekintza

mordoa dagoela eta nahikoa izango dela, baina bukatzean zapore gazi-gozoa uzten dute, beti nahi izaten dutelako gehiago herritarrek. Baina lasai, ez delako hainbeste falta 2019koak iristeko. Urte erdi baino ez. Gogoratu non dauden gordeta blusak.



Pirotecnia Valecearen su artifizialek itxi zituzten sanpedroak. TXINTXARRI



Sorgin Jaiek kuadrila jaitsiera egin zuten aurten ere. TXINTXARRI



Erketz EDTk 50 urte bete ditu, eta festetako omendua izan zen. TXINTXARRI



Herri kirolen emanaldiak ikusmira handia sortu zuen. TXINTXARRI



Su Ta Gar talde eibartarra aurrenekoz aritu zen Lasarte-Orian. TXINTXARRI



Gipuzkoaren etorkizuna gure desio guztien batura da.

Eskatu desio bat eta pentsatu desiatzen duzunean mundua aldatzen hasten zarela. **Desio baten atzean helburu bat dagoelako.** Eta helburu baten atzean, errealitate berri bat. Beraz, pentsa ezazu: zeintzuk dira etorkizunerako zure desioak?

Desioak etorkizunez beteta daude. **Eta desio horiek guztiak batuta eraikiko dugu Gipuzkoaren etorkizuna.**

Etorkizun On.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz

#niredesioa



Urtero legez, Iruñeko sanferminak ospatu zituzten udako txokoetako haur eta begiraleek, Okendo plazan. TXINTXARRI

Milaka abentura eta jolas Ttakunen udako txokoetan

Udalak enpresa pribatu bati adjudikatu zizkion udako txokoak. Ordura arte, Ttakun KEK antolatu ohi zituen. Kolpe gogorra izanik ere, altxa, eta txoko propioak antolatzea erabaki zuen elkarteak, 25 urte baino gehiagoko proiektuari segida emateko

Txintxarri

Uztailaren 27a. Ttakun KERen udako txokoen azken eguna. Apar festa Okendon. Eguzkia zeruan. Gaztetxoek irribarreak ikustea besterik ez zegoen jakiteko primeran pasa zutela aurten ere, milaka abentura eta kalentura bizitzen. Irribarreak, eta emozioak eragindako malkoren bat ere bai; azken ekintza hori baino lehen omenaldi xume eta hunkigarria jaso zuelako Pili Bermejo udako txokoen koordinatzaileak.

Bukaerako apar festa hori baino lehen, beste hamaika ekintza gozatu zuten txokoetan aritu ziren neska-mutilek: sanferminak, dantza saio bat Enara Ieregi herritarrekin, loreak landatzen Ormazabal loradendarekin, Atsokar egoitzara bisita bertako egoiliarrekin egon eta goiz ederra pasatzera... Ez zuten aspertzeko aitzakiarik izan beste urte batez Ttakun KERen txokoen alde apustu egin zuten familietako kide gazteenek. Ziur datorren urtean errepikatuko dutela.

Herrian bertan egin zituzten ekintza guztiez gain, Lasarte-Oriatik kanpo ere primeran pasa zuten haur eta begiraleek, makina bat irteera egin zituztelako.

Proiektuari segida ematen

1992. urtean antolatu zituen aurreneko udako txokoak Ttakun Kultur Elkarteak, udalarekin hitzarmena eginda. 2018ra arte diruz lagundu du egitasmo hori.

Aurten, ordea, erabaki zuen udako txokoak lehiaketara ateratzea, eta eskaintzak baloratzerako orduan alor ekonomikoa lehenetsi zuen kualitatiboaren gainetik. Hortaz, mende laurden eta gero, enpresa pribatu bati adjudikatu zizkion txokoak.

Ttakunek, ordea, proiektuari segida ematea erabaki, eta udako txoko propioak antolatu zituen, lan asko egin eta gero.



Apar festarekin itxi zuten aurtengo txokoetako txanda. TXINTXARRI



TXINTXARRI

San Pedro eta gero, Karmen

Sanpedroek utzitako ajetik errekueratu eta gero, Karmengo Amaren eguna ospatu zuten herritarrek Ori auzoan. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina hala ere primeran pasa zuten egitarauko ekintzetan parte hartzen. Mezarekin hasi zuten eguna; arratsaldean, toka lehiaketa helduentzat eta puzgarriak etxeko txikientzat; ondoren, Sorgin Dantza; eta bukatzeko, gauean, erromeria.



TXINTXARRI

Musika herriko kale eta plazetan

Kultur Kale Zikloak hainbat kontzertu ekarri zituen herrira uztailean. Musika estilo askotarikoak astebururo, Lasarte-Oriako kale eta plazetan. Funk, reggae eta jazz doinuak nahastu zituen Peppermin Quartet laukoteak Tximistarretan, adibidez. Pig&Kiss taldeak, berriz, Atsokar auzoan jo zuen. Lemon&Twist, Stelium eta Indian Feathers ere aritu ziren hilabete horretan.

Presoen alde, bizikletan

Orain Presoak ekimenak Mont de Marsan eta Zaballako espespeteak lotu zituen uztailean, era sinboliko batean. Bizikletaz egin zituzten hainbat etapa, presoen aldeko aldarriak Euskal Herri osoan zabaltzeko. Donostia eta Altsasu bitartekoa pasa zen Lasarte-Oriatik. Hainbat herritarrek egin zuten bat ekimen horrekin.



TXINTXARRI



Herriko gai garrantzitsuenak umoretik lantzen ditu Santa Ana eguneko parodiak. Gauean izan ohi da. TXINTXARRI

Santa Ana: ospakizunak, azoka eta parodia

Lasarte-Oriak urteak daramatza uztailaren 26a era berezi batean ospatzen: Santa Ana eguna da. Artisautza azoka, meza, dantza, hamaiketakoa, pintxo lehiaketa, pala txapelketa eta parodia umoretsua gauean. Horixe aurtengo ospakizunen egitaraua

Txintxarri

Ekainaren 29a eta gero (San Pedro eguna), uztailaren 26a izango da ziur aski egutegiko egunik garrantzitsuenak Lasarte-Oriarentzat. Santa Ana eguna da, eta haren omenez hamaika ekintza egiten dituzte urtero.

Sendoki artisau elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak azoka antolatzen dute Okendo plazan.

Ez da Santa Ana egunean bertan egiten, aurreko igandean baizik. Eguraldia primerakoa izan zen aurtengo edizioan, eta herritar ugari gerturatu ziren artisauak plazan jarritako postuetara.

Ospakizunetarako motorrak berotu eta gero, egun handia iritsi zen. Ama Brigitarren komentuan meza eginez ekin zioten herritarrek egun berezi horri. Ondoren, Ttakun

KEk prestatutako hamaiketakoa dastatu zuten, komentu alboko parkean. Bien bitartean, Erketz EDTko dantzariak emanaldia eskaini zuten Kale Nagusian Santa Ana karkaba aurrean.

Arratsaldean, pala txapelketako finalak jokatu ziren. Jon Begiristain eta Josu Iparragirrek irabazi zuten. Gauean, bukatzeko, parodia umoretsua izan zen Okendon.



Okendo plaza, jendez beteta, Santa Ana artisau azokan. TXINTXARRI



Erketz EDTko dantzariak emanaldia eskaini zuten Santa Ana egunean. TXINTXARRI



Aurtengo edizioko pala txapelketako hainbat jokalarik, elkarrekin. TXINTXARRI



ALBA

ARROPA DENDA

Erregeak ere gure dendetik pasatzen dira opariak erostera!

%25
beherapena

SOAKED ese 0 ese NAFNAP YERSE

aterpea

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.: 943 574450

adats

ILE-APAINDEGIA

2019 zoriontsua izan dezazuela!!

Mugikorra: 600 52 39 88
Geltoki kalea 3, LASARTE-ORIA

Arrozpide libre, ia 31 urte espetxean eman eta gero

Lasarte-Oriako presoak askatu zuten abuztuan; kondena ia osoa urruneko kartzeletan bete du

Txintxarri

Kartzelan denbora gehien eman duen bigarren euskal presoak da Santi Arrozpide. Guztira ia 31 urte. Hori dena, kontutan hartu gabe frankismoan ere espetxeratu zutela. Baina azkenean, abuztuaren lehen egunetan askatu zuten.

Berez, 2014ko abenduan askatu zuten, baina 45 egun besterik ez zituen eman kalean. Auzitegi Gorenak kondena bateratzeko irizpideak aldatu, eta beste batzuk gehituta, berriro kartzelaratu zuten. 45 egun horiek izan ziren 1987ko irailaren 30etik libre egin zituen bakarrik. Orduan Angelun atxilotu zuten, ETaren buruzagi militarra izatea leporatuta.

Jose Mari Sagardui *Gatza*-k bakarrik eman du denbora gehiago barrote artean; bi aste eskas gehiago. 2011n askatu zuten hura.

Kondena osoa urruneko kartzeletan bete du Arrozpidek. Salamancako Topasen eman ditu azken urteak. Gainera, lehen gradu batean bete du kondena ia osoa. Ia 70 urterekin, frankismoko kartzelaldia kontuan hartuta, bizitza erdia eman du barrote artean. Ibon Fernandez, Aitzol Iriando eta Xabi Gallaga herritarrek dira oraindik geratzen diren presoak; hirurak urruneko kartzeletan daude.



Los Cabales taldearen emanaldiak herritar asko erakarri zituen. TXINTXARRI

Extremadura zaporeko asteburua Jaizkibel plazan

Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko festak antolatu zituen Extremadura etxeak; 40 urte bete ditu aurten

Txintxarri

Zapore bereziko festak izan dira aurtengoak Lasarte-Oriako Extremadura etxearentzat. 40 urte bete ditu elkarteak aurten. Iraila hasieran ospatu zuen urteurren berezi hori, Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko jaiak eginez. Sasoeta auzoko Jaizkibel plaza izan zen ospakizunen erdigunea asteburu osoan zehar.

Beste urte batzuetan baino oztopo gehiago izan dituzte Extremadura etxeok festak antolatzerakoan. Kontua da zuzendaritzako kide batzuek ez dutela jarraitu nahi Extremadura etxearen alor kulturala sustatzen; nahi dute elkarte gastronomikoa besterik ez izatea. Zenbait bazkide ez daude ados horrekin, ordea, eta aurten ere antolatu zuten egitarau erakargarri bat. Pili Fernandez eta Angel Barrera izan dira sustatzaile nagusiak.

Adin guztietako herritarrek gozatu zuten Guadalupeko Ama Birjinaren festez: Los Cabales taldearen kontzertua, txaranga, haurrentzako jolasak, herri bazkariak eta afariak, extremadurar meza eta beste zenbait ekintza. 2019ko festak prestatzen ari dira honezkero.



Brotos y Raices taldeko kide bat. TXINTXARRI



TXINTXARRI

Martxa baketsua, erantzun bortitza

Lasarte-Oriako hainbat herritarrek parte hartu zuten Zubietan eraikitzen ari diren erraustegiaren aurkako martxan. Zubietako frontoitik abiatu, eta, bi taldetan banatuta, lanen guneraino igotzeko asmoa zuten, baina hara iristean hainbat ertzainekin egin zuten topo. Hiru aldiz kargatu zuten agenteek zutabe bateko kideen aurka, eta zenbait zauritu eragin zituzten.



TXINTXARRI

Erdi Aroa XXI. mendean

Denboraren makinan sartu zen Lasarte-Oria, eta Erdi Aroa itzuli, Xacobeo azokaren III. edizioan. Garai historiko horretako ikuskizunez eta produktuez gozatu zuten herritarrek iraileko hirugarren asteburuan. Santiago de Compostelara (Galizia) doan iparraldeko Done Jakue bidea herritik igarotzen dela gogoratzeko antolatzen dute azoka hori.

II. 'Gautxoria' Lasarte-Orian

Barre eta dantza egiten ordezkatu zuten loa lasarteoriarrek *Gautxoria* ekitaldiaren bigarren edizioan. Oso Fan taldearen kontzertuak ireki zuten gaubela. Barreak izan ziren protagonista gero, Alazne Etxeberria eta Asier Hormazaren bakarriketekin eta Solo Fabiolo ikuskizunarekin.



TXINTXARRI

Harremanak sendotzen

Euskal Herri osotik etorritako andaluziarrek Michelingo tenis pistetan elkartu ziren, FARA Euskal Herriko Andaluzia Etxeen topaketaz gozatzeko. Musika, dantza, jaki tipikoak, *rebujitoa*...eta sekulako festa giroa. Malagatik etorritako SonSonySal taldearen kontzertua izan zen emanaldi nagusia.



TXINTXARRI

Musika taupadak Hipodromoan, Donostia Festibalean

14.000 musika zale inguru bildu ziren jaialdian; Berri Txarrak, Kase.O eta C.Tangana aritu ziren, besteak beste

Txintxarri

Iazko edizioako arantzatxoa atera zuten Donostia Festibala jaialdiko antolatzaileek irailean. Bi aldiz musika zale gehiago gerturatu ziren Hipodromora ostiralean eta larunbatean, eguraldi ona lagun. Artista gonbidatuak ez ziren nolana hikoak izan: Berri Txarrak rock talde nafarra, Kase.O rap abeslari zaragozarra, C. Tangana madrildarra, Nathy Peluso argentinarra, Riot Propaganda eta La M.O.D.A. taldeak, besteak beste. Pussy Riot talde errusiarra ere



Berri Txarrakeko Gorka Urbizu. TXINTXARRI

etortzekoa zen, baina taldekideetako bat pozoindua izan zela eta, bertan behera utzi behar izan zuten larunbatean eskaini beharreko kontzertua.

Igeldon egin ohi zuten musika jaialdi hori, 2017an tokiz aldatzea erabaki zuten arte. Urte horretan eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta 8.000 pertsona inguru ibili ziren jaialdiak iraun zituen bi egunetan. Aurtengo edizioan jaialdiaren esentziari buelta bat eman diote, eta bilatu dute gazteria ere erakartzea. Bistan da lortu dutela, antolatzaileek emandako datu ofizialen arabera 14.120 ikus-entzule gerturatu zirelako kontzertuen gunera asteburu horretan.

Aterpea merkatarien elkarteak pintxo-musika ekitaldia egin zuten asteburu horretan herriko zenbait tabernatan.



Mitxelo eta Unai Olaizola, elkarrizketaren egunean. TXINTXARRI

Unai semeak hartu du Mitxelo Olaizolaren erreleboa Realean

Bizitza erdia pasa du Realean lanean Mitxelo Olaizolak; 37 urte eta gero hartu zuten erretiroa, abuztu hasieran

Txintxarri

"Lana gustukoa nuen, baina adinarekin bidaiak oso astunak egiten dira". Makina bat bidaiak egin ditu Mitxelo Olaizola herritarrek Realean lanean pasa dituen 37 urteetan. Abuztuaren 6an prestatu zuten azkeneko lehen taldeko jokalariek lan saio horretan erabili beharreko material guztia. Erretiroa hartu du aurten, eta Unai semeak hartu du lekukoa.

Ikasturtea hasi eta berehala elkartu zen Mitxelo TXINTXARRI aldizkariarekin. Semea ere etorri zen elkarrizketara; bukatu eta gero biek atera zuten argazkia. "Nire semea izatearen zama edukiko du lehenengo hilabeteetan, baina ez dago hor horregatik; hasia zen Realean lanean", azaldu zuten aitak.

Azken lan eguna ongi oroitzen du Mitxelok: "Zubietako goiko

zelaira igotzeko esan zidaten; hara iristean zain neuzkan jokalaria eta lagunak; pasilloa egin zidaten".

Marketinaren eragina futbolean

Esaldi honek bete zuten elkarrizketaren titularrak: "Marketina futboleant sartu zenean izoratu zen dena". Jokalarien elastikoen koloreek eman dizkiote buruhauste bat baino gehiago. "Salmentetan besterik ez dute pentsatzen".

Erretiroa hartu badu ere, jarraitzen du Realean partidak ikusten. Ez tabernan edo beste pertsona batzuekin; nahiago du etxean ikusi, lasai-lasai. "Baten bat jokalariez gaizki esaka ari bada min asko ematen dit". Tituluak irabazi izan ditu 37 urte horietan, baina Lehenengo Mailara igo izana da bere "titulurik goiangoarriena".



BAT BASQUE TEAM

Zilarrezko domina Seu d'Urgellen

Seu d'Urgell (Lleida, Katalunia) primeran ezagutzen du Maiaien Chourraut piraguistak. Herri horretan bizi da, eta bertako kanalean entrenatzen du. Munduko Kopako proba bat jokatu zen han, eta zilarrezko domina kolokatu zuten herritarrek; ordura arte zeraman bolada txarra apurtu zuten. Gutxigatik ez zuten urrea irabazi: ate bat ukitu zuten finalean, eta bi segundoko zigorra jarri zioten epaileek. Halere, irabazletik segundo bat eta 77 ehunetara geratu zen. 2019an Seun bertan jokatu da munduko txapelketa. Han banatuko dira Tokio 2020rako txartelak.

TXINTXARRIK KAZETARIA BEHAR DU

Txintxarri aldizkarian lan egiteko kazetaria behar du Ttakun Kultur Elkarteak. Lana Jardunaldi osokoa izango da eta 6 hilabetetako iraupena izango du, luzatzeko aukerarekin.

- **Ezinbestekoa:** - Euskara eta gaztelera ahoz eta idatziz menperatzea (gutxienez C1 maila izatea).
- Kazetaritzan aritua izatea.

- **Baloratuko da:** - Kazetaritza gradua izatea.
- Photoshop, InDesign eta Illustrator menperatzea.
- Sare sozialen ezagutza izatea.
- Ekimendun pertsona izatea.
- Lasarte-Oria ondo ezagutzea.

Curriculumak urtarrilaren 7ra bitarte jasoko dira:
ttakun@ttakun.eus
Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria

txintxarri





Kris Alvarez eta Arkaitz Izagirre herritarrak, TXINTXARRI irakurtzen banku batean, duela 25 urte bezala. TXINTXARRI

25 urte euskara etxe guztietan

1993ko urriaren 1ean atera zen kalera TXINTXARRI aldizkariaren lehenengo zenbakia. 25 urte pasa dira, baina esentzia ez da aldatu: euskara Lasarte-Oriako etxe guztietara eramatea. Mende laurdenaren erreposoa eginez ale berezi bat egin zuen TXINTXARRI-k

Txintxarri

"Aldizkari bat betetzeko nahikoa informaziorik ba al dago Lasarte-Orian?". Galdera horri erantzun behar izan zioten orain dela 25 urte TXINTXARRI sortzeko lanetan zeudenek. 1993. urteko urriaren 1ean argitaratu zuten lehen zenbakia, gogo eta ilusio bereziarekin. Ez da gutxiagorako: herri bat euskalduntzeko tresna paregabea da aldizkari bat. Denborak arrazoia eman die hasiera hartako ekintzaileei: 25 urtean 1.435 zenbaki argitaratu dira. 8.000 aletako tirada du egun, eta Lasarte-Oriako etxebizitza guztietan sarrarazten du euskara.

Gainerako hedabideen antzera, herri aldizkariak sufrutu du prentsa idatziaren gainbehera. Publizitateko diru sarrerak ezinbestekoak dira proiektu honen bideragarritasuna bermatzeko, baina salmentak asko jaitsi dira.

Ttakun Kultur Elkarteko langileen borondate irmoari esker egin du aurrera TXINTXARRI-k urte horietan. Nahitaez aipatu beharra dago erakunde publikoen babesa, batez ere Lasarte-Oriako Udalarena. Haiek gabe ez luke horren bide luzea egingo aldizkari honek.

Langile eta laguntzaile asko eta asko pasa dira TXINTXARRI-tik. Praktiketako ikasleak, kazetari trebeak, zuzendari tematiak, laguntzaile eskuzabalak... Edonola ere, hemerrotekako zenbaki zaharrak begiratu besterik ez dago ohartzeko hedabidearen filosofia ez dela aldatu, hasierako irizpideari eutsi baitiote ondorengo langileek ere. Herritarrak euskarara erakartzeko helburua betetzeko, aldizkariak beti errespetatu eta islatu du Lasarte-Oriaren aniztasuna. Denen bozgorailu izaten saiatu da, eta, bide

horretan, herriko elkarte eta eragile guztiek izan dute tokia orri hauetan. Etorkizuna gorabeheratsua izan arren, horrela izaten jarraituko du. Izan ere, Lasarte-Oria aldatu ahal aldatuko da TXINTXARRI ere.

Lehenengo urteak gogoratzen

Aldizkariaren lehen lan taldeko kide izandako Nekane Zapirainekin eta Maialen Suberbiolarekin elkartu zen TXINTXARRI, gogoratzeko nolakoak izan ziren aurreko urte horiek. Suberbiolak aipatu zuen berari tokatu zitzaizola egitasmoaren berri ematea Ana Urtxuegiari, orduko alkateari. "Izena oso itsusia zela esan zidan, baina beti portatu zen ongi gurekin". Zapirainek gogoratu zuen gau osoak ematen zituztela lanean, aldizkaria osatu ahal izateko. "Argazki asko gauetan ateratzen genituen, 23:00etan, adibidez".



Malu Garmendia, Mila Eizmendi, Nekane Zapirain eta Maialen Suberbiola. TXINTXARRI



Nekane Zapirain eta Maialen Suberbiola, ale zahar eta berri banarekin. TXINTXARRI



Erredakzio kontseiluaren laguntza zeukan TXINTXARRI aldizkariak. TXINTXARRI



Antza inprimategira eramaten zituzten aleak hasieran. TXINTXARRI



Hiru borrokaldi egin zituen Oscar Alegrek Special Olympics jokoetan. GORKA ARISTEGI

Oscar Alegre judoka, Special Olympics jokoez gozatzen

"Esperientzia polita" bildu zuen Alegrek Andorran, eta brontzeko domina ekarri zuen Lasarte-Oriara bueltan

Txintxarri

Astean hirutan aritzen da judoan Oscar Alegre 20 urteko gaztea, LOKE kirol elkartearen. Esperientzia berri bat bizi izan zuen urriaren 7tik 9ra, Andorran eta Kataluniako La Seu d'Urgellen egindako Special Olympics jokoetan. Gozatu eta ikastearekin nahikoa ez, eta brontzeko domina bat ere kolkoratu zuen lasarteoriatarrek. Euskadiko selekzioarekin joan zen Alegre, guraso eta Gorka Aristegi entrenatzailearekin batera.

Bi jardunaldi egin zituen Alegrek Andorran. Entrenatu

egin zuten aurrena: epaileek ikusi zuten zein maila zeukan kirolari bakoitzak. Hori aztertu eta gero, bigarren egunean lehiatu zuten, bakoitzak bere mailan. Ederki aritu zen judoka lasarteoriatarra.

Hirutan tatami gainean

Pisu handienean parte hartu zuen LOKEko judokak. Hirutan igo zen tatamira. Andorrako bi judoka eta Suitzako bat eduki zituen aurrez aurre. Brontzea irabazi zuen. Aristegik ez du baztertzen horrelako torneo gehiagotan aritzea etorkizunean.



TXINTXARRI

Osasuntsu eta gogotsu

Adineko Pertsonen Omenezko Astea ospatu zuten herritarrek urri hasieran. Lehen egunetik izan ziren ekitaldiak eta jokoak: igela eta pote lehiaketak eta bingoa. Ariketa fisikoa ere egin zuten Biyak Bat egoitzara hurbildu ziren adineko pertsonak ospakizunek irau bitartean. Asteburuan bazkari jendetsua egin zuten; azken egunean, urrezko ezteiak egin dituzten bikoteak zoriondu zituzten.

Sasoï betean daude Sasoeta auzoko jaiak

Lasarte-Oriako gazte, heldu eta adinekoek primeran pasa dute Sasoetako festetan. Auzoko jaiak berreskuratu zituen duela bi urte Sasoeta Sasoian elkarteak, iragana ahaztu gabe: jai batzordeko kide izandako Antonio Arranzek eman zuen pregoia

Txintxarri

Duela bi urte berreskuratu zituen auzoko festak Sasoeta Sasoian bizilagun elkarteak. Nabaritzen da esperientzia hartzen ari direla, urtero festa hobeak antolatzen dituztelako. Andatza eta Jaizkibel plazek hartu zituzten egitarauko ekintza gehienak, baina Sasoetako kale eta bazter guztietara iritsi zen festa giroa.

Belaunaldi berriek ziur aski ez dakite duela hainbat urte Sasoetako festak ospatzen zirela. Aurreneko jai batzordeko kideetako bat izan zen Antonio Arranz herritarra. Berak eman zuen aurtengo festetako pregoia. Nabarmendu zuen Sasoetako festak beste auzoen mailara iritsi direla berriro ere.

Atsedetik gabeko hiru egun

Txupinarekin batera lehertu zen festa Andatza plazan. Metro batzuetara, musika eta sardina usaina, Jaizkibel plazan. Helduek sutan erretako arraina dastatu



Danborrada izan zen Sasoetako festetako ekitaldi nagusietako bat. TXINTXARRI

bitartean, ezin gusturago aritu ziren etxeko txikiak mini-diskoan, kantuan eta dantzan.

Danborrada izan zen larunbateko ekintza nagusia. 2016an berreskuratu zuten ohitura auzo elkarteok, jaiak

antolatzeke ardura hartu zutenean. Gauean, zezensuzkoa eta kontzertua.

Igande goizean indarrak hartu zituzten auzotarrek, Jaizkibel plazan egin zuten tortilla patata lehiaketan. 2019an, gehiago.



TXINTXARRI

Zonbiak herrira itzuli ziren

Bazirudien iazkoa ez zela errepikatuko, baina Gaueko iluntasunaren jauna eta bere zonbi gudarostea Lasarte-Oriara itzuli ziren urriaren 6an, larunbatearekin. Eguraldi txarra ez zen oztopo izan, eta ehunka pertsonak parte hartu zuten Survival Zombie jokoaren bigarren edizioan. Moldaketa batzuk egin zituzten: sei ordu iraun zituen jokoak, eta Loidibarren pilotalekura aldatu zituzten informazio eta makillaje guneak. Ikusmira handia sortu zuen ekitaldiak lasarteoriatarren artean, eta asko atera ziren kalera, hildakoen artean bizitzara bueltatutako izakiak ikustera.

Lehia bizia eta eguraldi freskoa kros goizean

Aitor Etxeberriak eta Aratz Rodriguezek irabazi zuten Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoia. Ia 800 pertsonak parte hartu zuten herri lasterketan. Patinatzaileetan Nicolas Alonso eta Bego Huertas gailendu ziren. Lehen aldiz 30 bat ipar martxalari atera ziren

Txintxarri

Euria eta hotza izan ziren kros eguneko goizean Lasarte-Orian, baina ez nahikoak korrika festa zapuzteko. Ia 800 pertsonak parte hartu zuten urteroko hitzorduan, eta herriko kaleak jai giroan berotu zituzten. Goi mailako atletak ere erakarri zituen aurtengoan herri lasterketak. Lehia estu baten ostean gailendu zen Aitor Etxeberria igeldotarra, 31:43ko denborarekin. Aratz Rodriguezek, ordea, ez zuen esprintean garaipena jokatu behar izan, bakar bakarrik gurutzatu zuelako helmuga 36:46 minututan.

Soilik tarteka bota zuen euri zaparradaren bat, baina horrek baldintzatu egin zuen patinatzaileen proba. Bera-Bera taldeko Nicolas Alonsok irabazi zuen, azken zuzenki Inñaki Zubillaga atzean utzita. Bego Huertasek, aldiz, nagusitasunez eskuratu zuen proba.

Bestalde, froga moduan ipar martxako 30 bat kide atera ziren, bost kilometroko ibilbidea egiteko. Bukaerako metroak korrikalariekin batera egin zituzten, arazorik gabe. Helduek bukatu ostean, gaztetxoak aritu ziren, Korrika Festan.

Euskaraldiko hamaikakoak eraman zuen 1 dortsala; denak batera sartu ziren bukaeran.



Lasterkari talde bat, Hipodromotik Zubieta aldera joaten. TXINTXARRI



Gaztetxoek irribarretsu parte hartu zuten Korrika Festan. TXINTXARRI



Dantza emanaldia eta gero talde argazkia atera zuten denek elkarrekin. TXINTXARRI

Okendo plaza lepo beteta bukatu zituen ospakizunak Erketz EDTk

Amaiera berezia urte ezin bereziagoarentzat: desfilea, dantza emanaldia, bazkaria eta erromeria egin zuten

Txintxarri

Ez dute berehalakoan ahaztuko 2018a Erketz EDTko kideek. Urrezko ezteiak ospatu zituzten urte osoan zehar. Urrian bukatu zituzten ospakizun ekitaldiak: desfilea, dantza emanaldia, talde bazkaria eta erromeria egin zituzten. 50 urteotan dantza taldeko kide izan direnen eta izaten segitzen dutenak kontatuta, 200 herritar inguruk parte hartu zuten azken ekitaldi horietan.

Desfilea hasi baino lehen ez zen jende gehiago kabitzen Landaberri Garaikoetxea ikastetxean. Musikariak jotzen hastearekin batera hasi ziren erdiguneko kaleak zeharkatzen: Atsobakar auzoa, Kale Nagusia, Hipodromo etorbidea, Geltoki kalea eta Okendo plaza.

Bertara iritsitakoan bi ordu inguruko emanaldia eskaini zuten hainbat dantzarik, gazte zein beteranoek. Euren

errepertorioko onena eskaini zuten Erketz EDTk, ikus-entzuleen txalo artean.

Igandean, Michelin frontoian elkartu ziren ehun pertsona baino gehiago, talde bazkaria egiteko. Bapo jan ostean, iluntzera arte aritu ziren kantuan eta dantzan, erromerian.



TXINTXARRI

Martin Berasategui jatetxearen mende laurdena gogoratzeko

"Hunkituta" jaso zuen omenaldia Martin Berasategi sukaldariak; Julian Toquero egina da eskultura

Txintxarri

Duela mende laurden ireki zuen Martin Berasategi sukaldariak bere izena daraman jatetxea Lasarte-Orian. Denbora horretan guztian, Lasarte-Oriari emandako guztia eskertze aldera, omenaldia

egin zion udalak eta familiak. Julian Toquero artista herritarrak eskultura bat egin, eta hori inauguratu zuten. Jatetxe parean dago kokatuta. "Hunkituta eta eskertuta" jaso zuen aitortza sukaldariak.

Donostiako Bodegon Alejandro jatetxean eman zituen lehen urratsak Berasategik, 15 urte besterik ez zituela. Familiarena zen negozio hori. Bertan jaso zuen bere lehen Michelin izarra, lanean hasi eta hamar urtetara. Lasarte-Oriako jatetxea ireki eta hurrengo hamarkadetan beste bederatzita pilatu ditu; azken biak 2018an. Goi mailako sukaldaritzan sartuta dago orain buru-belarri. Hainbat jatetxe ireki ditu honezkerok, eta proiektu berriak ditu esku artean.



Martin Berasategi eta familia, eskultura inauguratu berriarekin. TXINTXARRI

Maite **B**ETELU



2019 zoriontsua opa dizuegu!



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**

Aralar plaza 4 behea, Lasarte-Oria • Tel.: 943 36 48 86 • www.mbetelu.com

INPRENTA
offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

*Goza ezazue jai hauetan
Urte berri on!*

antza

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

Zirkuitu Ibilbidea 2 · 20160 LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 info@antza.eus
www.antza.eus

HH5/LH1/LH2koentzat
ARTISAUTZA

ASTELEHENETAN: Urtarrilaren 21etik Otsailaren 18ra.
17:30etik 19:00ak arte.

ASTEARTETAN: Urtarrilaren 22tik Otsailaren 19ra.
18:00etatik 19:30ak arte.

Udal Euskaltegiko solairuko erabilera anitzeko gelan.
15€ EZ BAZKIDEAK / 12€ TTAKUNEKO BAZKIDEAK

BITXIAK, ERREZETAK, JOSTAILUAK, EGURRA,...

Izena emateko:
Geltoki kalea 4, behea
aisia@ttakun.eus
695 785 392

Ttākun
kultura kartoa

@TtākunKE



TXINTXARRI

Desioa errealitate bihurtu dute

Urteetako aldarria harri bilakatu da. Pilotaleku estalia dauka Zabaleta auzoak. Hamaika ekintza eginez inauguratu dute; Iraia Iparragirre auzotarrak eta Realeko futbolariak egin du ohorezko sarea. Babarrun beroak jan dituzte herri bazkarian, eta iluntzera arte luzatu ospakizuna. Erromeria doinuekin aritu dira dantzan auzotarrak.



TXINTXARRI

Bost lasarteoriatar selekzioan

Saskibaloiko Hego Euskal Herriko txapelketa jokatu dute kadeteek Gipuzkoako selekzioarekin; finala galdu dute Bizkaiaren aurka. Judith eta Garazi Navarrok jokatzeko selekzioan. Horiez gain, beste hiru herritar ere daude taldean: Ander Otaegi hautatzailea, Xabi Altuna eta Endika Marrahi laguntzaileak. Donostiako Easo taldean jokatzeko dute bi ahizpek.

Euskal Jai ospakizunak

Txistulariek eta danbolin joleek esnatu zuten herria Eskal Jaietan. Bazkaltzeko errioxar erara egindako patatak jan eta gero, arratsaldeko ekintzak hasi zituzten: Bea Egizabalen bazkaloste umoretsua, harrijasotzaileak, erromeria eta taberna pote girotua. Sorgin Jaiak eguna sorgindu zuten, gazte olinpiadak eta herri afaria antolatuta.



TXINTXARRI

Biktimak oroitzeko bat egin dute ia alderdi guztiek

Udaleko gobernu taldeko politikariek bat egin dute biktimak oroitu eta omenaldia egiteko

Txintxarri

Azken urteetan bezala, "Terrorismoaren eta motibazio politikoko edozein indarkeriaren biktima guztiak" oroitu dituzte udal ordezkariak, Askatasunaren parkean. Testu bat irakurri dute aurrena, eta bost minutuko isilunea gorde dute gero. Horren ostean, larrosa zuri bana jarri dute parte hartzaileek Gotzon Huegun egilearen *Biharraren oroipena* plaka gaineko lorontzian. Ekitaldian ez dira Lasarte-Oriako gobernu taldea osatzen duten alderdi guztiak egon, PP ez da agertu.



TXINTXARRI



Lasarte-Oriako hamaikakoa. TXINTXARRI

Azkeneko maratoian baino 1.000 herritar gehiago aritu dira

3.000 herritarrek bat egin zuten Euskaraldiarekin, eta 11 eguneko ariketa sozialean gogotsu aritu ziren

Txintxarri

Txukun aritu dira lasarteoriatarrek Euskaraldiaren 11 egunetan. Hizkuntza ohiturak aldatzeko saiakera arrakastatsua izan da; 3.000 herritarrek izena eman zuten, eta Lasarte-Orian aski ezaguna den ariketa sozialean aritu ziren.

Lan handia egin zuten antolatzaileek herritarrek erakartzeko. Euskotreneko bidaietako antzerkiekin animatu ziren asko izena ematera, baina, hori ez zen aktibaziorako egin zuten ekintza bakarra izan. Etxez etxeko ekitaldi bat ere egin zuten. 160 pertsona inguru aritu ziren atez ate Euskaraldia herritarrei azaltzen, eta izen emateko aukera eskaintzen. Etxebizitzetako txirrina jo, eta herritarrei azaldu zieten zertan zetzan 11 eguneko esperimendu linguistikoa. Aukera eman zieten bizilagunei *belarriprest*


edo *ahobizi* gisa izen emateko. Baita auzoa edo kalea apaintzeko ere. Izan ere, *Euskaraldia loratzen Lasarte-Orian* kanpainaren asmoetako bat izan zen herriko balkoi guztiak koloretako puntu bilakatzea. Horregatik banatu zituzten afixak, kolore askotako puntuekin, jendeak balkoian zintzilikatu zitzaizkien. Euskara erabiltzeko hizkuntza ohiturak astindu ez ezik, herria ere puntu koloretsuz loratzeko.

Azaroaren 23tik aurrera txapak jantzi zituzten soinean herritarrek. Euskal hiztunak eta euskaraz ulertzen dutenak identifikatzeko balio zuen txapak.

Edonola ere, antolatzaileek indarra hamabigarren egunean jarri zuten. Alegia, 11 eguneko ariketa soziala baliatu nahi zuten, urte osoan euskararen erabilera bultzatzeko dinamikak bultzatzeko.

Kultura herrian barrena

Herriko plazak eta kaleak dinamizatzen helburua izan du Aterpea merkatarien eta ostalarren elkarteak. Horretarako, Leku guztietan kultura kanpaina martxan izan da, udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Tratu On Bat markaren laguntzarekin. Lasarte-Oriako hainbat txoko girotzeko, kontzertuak antolatu zituzten azaroko eta abenduko ostiraletan.



TXINTXARRI



Kukukako kideak, emanaldia egin zuten Euskaraldiaren ekitaldian. TXINTXARRI



Balkoi askotan jarri zituzten puntuak herritarrek. TXINTXARRI



Ahobizi eta belarriprest txapak. TXINTXARRI

Hamaika ekintza indarkeria matxistari aurre egiteko

Azaroaren 25eko aldarria astebetera zabaldu zuten 2018an. Ekintza ugari izan zituzten herritarrek kontzientzia hartzeko

Txintxarri

Azaroaren 20an, Haurren Nazioarteko Eguna baliatuz, *Eskubideen motxilak* aurkeztu zizkieten herritarrei. Kultura gizartean eragiteko ezinbesteko tresna izanik, horixe bera lortu nahi zuten egitasmoarekin. Feminismoa, ahalduntzea eta berdintasuna gaiak ardatz hartuta, lasarteoriatarrek kontzientzia hartzeko liburuekin eta ikus-entzunezkoekin bete zituzten bizkar-zorroak.

Errepide seinaleak ere jarri zituzten udalak indarkeria



Zazpi kartel jarri zituzten. TXINTXARRI

matxista arbuiatzeko. Lasarte-Oriak emakumeen aurkako indarkeriarik onartuko ez duela argi eta garbi irakur zitezkeen horietan. Gerora kendu egin zituzten aldi baterako, akats bat zuzentzeko. Halere, jakinarazi zuten laster jarriko zituztela berriz ere lehengo lekuetan.

Azaroaren 25ean, igandean, elkarretaratzea egin zuten Okendo plazan. Bertan bildu ziren udal ordezkariekin batera herritar ugari. Bestalde, Beldur Barik lehiaketa egin zuten, eta ere parte hartzaile asko izan zituzten.

Antzerkiak, hitzaldiak, gida, ekintza komunitarioak eta beste hainbat ekitaldik borobildu zuten 2018. urteko indarkeria matxistaren aurkako egitarau zabalak.



TXINTXARRI

Emandako testigantzak eskertzeko ekitaldia

Lau urte daramatza Islada Ezkutatuak taldeak 1936ko altxamendu militarra eta 1940eko hamarkada ikertzen, eta Lasarte-Orian izan zituzten ondorioak azaleratzen. Asko laguntzen diete herritarrek ematen dizkieten testigantzek. Orain arte 80 bat bildu dituzte: elkarrizketa liburu bat argitaratzekotan dira 2019an. Horietatik zortzi 2018an jaso zituzten, eta, beste urteetan bezala, udaletxeko pleno aretoan ekitaldia egin zuten azaroan. Erakundeek ere eskerrak eman zieten, ematen dieten laguntza "oso garrantzitsua" delako.

atropa urte berri on!

ELECTRICIDAD ARREGUI

600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)

Gabonetako eskaintzak ditugu!

IRRISTAILU ELEKTRIKOA
Xiaomi
399 €

ONWA TELEBISTA
65HD
790 €

Hari gabeko
SAGUA
65HD
12,90€

Istanteko
ARGAZKI KAMERA
73,90€

ENTZUNGAILUA
JBL
39,99€

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA - Tel. 943 36 10 80 - Tel/Faxa: 943 37 25 21



Emanaldia bukatu eta berehala talde argazkia atera zuten Jalguneko kideek. TXINTXARRI

Larunbatei gorazarre egin zieten Jalgune elkarteko kideek

Kultur etxea lepo bete zuen Jalgunek urteroko jaialdian. Azaldu zuten zergatik gustatzen zaizkien larunbatak

Txintxarri

"Gure jendearekin gaudelako". Larunbatak zergatik gustatzen zaizkien azaldu zuten Jalgune elkarteko lagunek kultur etxean, urtero egiten duten jaialdian. Asteko egun horretan elkartzen dira kide eta begiraleak, bazkal ostean. Ongi pasatzeaz eta aisiaz gozatzeaz gain, beste hainbat gauza ere egiten dituzte. Esate baterako, elkarri laguntzen ikasten dute, bakoitzak gaitasun desberdinak izan arren, guztiak berdina direlako.

Ezuste atsegin bat bestearen atzetik. Horixe izan zen Jalguneren jaialdia. Txiki geratu zitzaizen auditoriooko oholtza: sarrera guztiak salduta, ilara luzeak egin zituzten ikus-entzuleek sarreran.

Dantzatzeko trebetasuna erakusteko irrikaz, izerdi patsetan bukatu zuen batek baino gehiagok. Errepertorio luzea

dute Jalgunen. Sevillanek, Semblante Andaluzen laguntzaz. Euskal abestiak, Zabaleta Auzolan elkarteko kideekin. Eta boladan dauden beste hamaika kantu, *Operación Triunfo* programa famatukoak barne.

Musikaz gain, bideo batzuk ere tartekatuz zituzten, galdera batzuei erantzuteko.



Kultur etxeko oholtza. TXINTXARRI

Saskibaloiairen etorkizuna, Maialen Chourraut kiroldegian

Euskadi, Nafarroa, Asturias eta Galiziak lagunarteko txapelketa jokatu zuten, Espainiakoa prestatzeko

Txintxarri

Kadete mailako Euskadi, Nafarroa, Asturias eta Galiziako selekzioek lagunarteko txapelketa jokatu zuten Maialen Chourraut kiroldegian, abenduko zubian. Urtarrila hasieran Espainiakoa

ariko dira; hori prestatzea izan zen Lasarte-Orian jokatuako partiden helburua.

Galizia izan zen hiru neurketak irabazi zituen talde bakarra. Beraiek erakutsi zuten maila onena asteburuan zehar. Asturias

Kirol urte bikain bat ixteko modu ezin hobea

Iraia Iparragirre futbolaria, Raul Gomez lasterketaria eta Pili Bodegas triatloilaria izan dira 2018ko kirolari nabarmenenak

Txintxarri

Iraia Iparragirre, Raul Gomez eta Pili Bodegas. Hiru horiek izan dira 2018ko kirolari nabarmenenak, Lasarte-Oriako Kirol Batzordearen ustez. Hautaketa prozesu bat jarri zuten martxan hiru sarituak aukeratzeko. Herritarren proposamenak aztertu eta gero, deliberatu zuten futbolaria, lasterkaria eta triatloilaria saritzea. Udaletxeko pleno aretoan egin zieten aitortza.

Gastea da Iparragirre, baina urte mordo daramatza futboleko jokatzeko. Ostadar SKTn egin zituen aurreneko urteak, 2011n Añorgak fitxatu zuen arte, Bigarren Mailan lehiatzeko. Denboraldi bikainak egin zituen han, Realeko ikuskatzaileen arreta deituz. 2015-2016 denboraldia hasi aurreko udan fitxatu zuen talde donostiarra.



Iparragirre, Gomez eta Bodegas. TXINTXARRI

Laugarren sasoia du aurten, eta asko ari da jokatzeko. Defentsa da Iparragirre; eskuin hegalean zein erdian jokatu ohi du.

Raul Gomezek milaka kilometro pilatu ditu hanketan. Dibertitzea

eta ariketa fisikoak egitea ziren haren hasierako helburuak, 2011n lasterka egitearena oso serio hartu zuen arte. Urtean 35 lasterketa egin ohi ditu, batez beste. Aurten 39tan parte hartu du, oraingoz. Hamalau irabazi ditu, eta bosna bigarren eta hirugarren postu erdietsi. Kirolprobak liga bost aldiz irabazi du azken urteetan.

Pili Bodegasek hiru kirol diziplina uztartzen ditu: igeriketa, txirrindularitza eta atletismoa. Triatloiak egiten ditu. Dezentek, gainera. Beteranoen kategorian lehiatzen du eta makina bat lasterketa irabazi ditu. Aurten, besteak beste, Gipuzkoako txapelketa poltsikoratu du esprint distantzian. "Espero dut saria erreferente izatea herriko emakumeentzat: erakusten du posible dela lana eta familia uztartzea kirol munduan bete nahi dituzun ametsekin", nabarmendu zuen ekitaldian.

Hirugarren urtez banatu ditu sari horiek udalak. 2017an Eneritz Busto atleta, Axier Arteaga pilotaria eta Mikel Etxarri futbol entrenatzailea saritu zituen.

'Black is Beltza', kultur etxean

Okendo Zinema taldeak gonbidatuta, Fermin Muguruza kultur etxera etorri zen eta azken lana erakutsi zuen ikus-entzuleen aurrean: *Black is Beltza* animaziozko filma. Bi pase egin zituzten: ostiral iluntzean aurrea, eta igande arratsaldean bigarrena. Ongi erantzun zuten lasarteoriatarrek, eta bete egin zuten auditorioa.



TXINTXARRI

ere ederki aritu zen, baina ezin izan zuen galiziarren aurka irabazi. Euskadik maila handiko jokalariek dituen harrobian, baina behar bezain erregularrak izan ez zirenez, partida bakarra irabazi zuten eta bi galdu. Nafarroak ongi lehiatu arren, hiru norgehiagokak galdu zituen.

Lau urte daramatza Ostadar Saskibaloiak maila horretako txapelketak antolatzen, Euskadiko Saskibaloia Federazioaren eta Lasarte-Oriako Udalen laguntzarekin.



Euskadi eta Nafarroaren arteko partidako une bat. TXINTXARRI

Txartel eta Lasarte tabernak, pintxo ibilbideko izarrak

Denera 1.350 pintxo baino gehiago saldu zituzten VI. pintxo ibilbidean. Zortzi tabernak parte hartu dute

Txintxarri

Aterpea merkatarien elkarateak pintxo ibilbidearen VI. edizioa antolatu zuen. Datuak oso onak izan ziren: 1.350 pintxo baino gehiago saldu zituzten zortzi taberna parte hartzaileek. Bar Lasartek eraman zuen epaimahaiaren saria, eta Txartelak herritarrena. Ramon Roteta sukaldariak egin zituen epaimahaikide lanak. Onartu zuen txapelketa oso parekatua

izan zela. Pintxoaren itxura, zaporeen konbinazioa, zaporea eta sormena hartu zituen kontutan. Irabazleak 34 puntu eskuratu zituen (40 posibletik) eta azken sailkatuak 29. Parte hartzaile guztiak zoriondu zituen Jesus Zaballos alkateak, eta pintxoak euren menuetan txertatzera animatu.

Bar Lasarte eta Arkupek saldu zituzten pintxo gehien: 283 eta 212, hurrenez hurren. Halere,



Pintxo ibilbideko parte hartzaileak eta alkatea, sari banaketa ekitaldian. TXINTXARRI

kopuru errealeak altuagoak izan ziren, asteburu horretan pintxoren bat jan zuten herritar guztiak ez zutelako bozkatu.

Bozkatu zuten lasarteoriatar guztien artean 200 euroko sari bat zozketatu zuten; Myriam Sanchezi tokatu zitzaion.

Buruntzaldea IKTKo igerilari gazteak, garapen egokian

Buruntzaldea IKTKo igerilariak hainbat proba izan dituzte abenduan eta markak onduz joan dira.

Ainhoa eta Leire Martin a hizpak Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu zuten XV. Castalia Castellon Nazioarteko Sarian, abenduko zubian. Ainhoa 200 m. bular probako urrezko domina jantzi zuen, txapelketako errekor berria ezarrita: 2:3713.

Infantil, junior eta absolutuek Neguko Ligako hirugarren eta laugarren jardunaldietan, guztira 43 marka hobetu zituzten.

Basaundi bailara biziberritzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntza

Auzotarrekin bilerak egin dituzte informatzeko. Bestalde, herritarren hiru proiektu aurrekontuetan sartuko dira

Txintxarri

Basaundi Bailara auzoko berrurbanizazio lanak urtarrean hasiko dira. Auzoko birmoldatzearekin batera, Lasarte-Oriako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren berritze lanak ere sustatuko dituzte. Horretarako, 2.400.000 euroko hitzarmena sinatuko dute. Diru laguntza hori Eusko Jaurlaritzak edo udalak ematen dituen beste diru laguntzekin bateragarria da.

Laguntzen berri emateko bulego bat jarriko da auzoan

otsaila aldera, auzo elkarteko lokalean.

Aurrekontuetan hiru proiektu

2019ko aurrekontuetarako hiru proiektu onartu dituzte, eta 500.000 euroko gehienezko diru kopurua gaintzen ez dutenez, hirurak egiteko konpromisoa hartu du udalak: herriko haur parke bat estaltzea, txakurrentzako iturriak jarri eta soinu neurgailu bat erostea, eta oholtza mugikor bat eta bitxosna erostea.



TXINTXARRI

Urtetik urtera giro hobea

San Tomas egunari hasiera emateko, Sasoeta ikastetxeko ikasleak Okendora jaitsi ziren, baserritarrez jantzita. Erdiguneko kaleak alaitu zituzten, kantuekin eta musikarekin. Arratsaldean, Okendo txiki geratu zen. Txerrama ikusi zuten herritarrek, txistorra eta txokolate taloak eta gaztainak jan zituzten, eta txikienek taloak nola egiten diren ikasi zuten, Gazte Klubeko lagunekin. Xumela abesbatzako kideak ere animatu ziren festan parte hartzera, erdigunean zehar egindako kalejiran. Erromerian gustura dantzan aritzeko ere egon zen tarterik. Bertako ekintzak bukatu zirenean, goizaldera arte jarraituko zuten oraindik parranda gogoa zeukatenean, herriko zenbait eragilek prestatutako egitarau bateratuko ekintzez gozaten.



Olentzero, Mari Domingi eta Xixuko kalejiran. TXINTXARRI

Olentzero eta Mari Domingi Lasarte-Orian izan ziren

Xixuko, Porrotx, Mari Teilatuko eta hainbat laguntzarekin etorri ziren, kalejiran. Haurrek harrera beroa egin zieten

Txintxarri


Olentzero ikazkina eta Mari Domingi laguna menditik jaitsi ziren, milaka opari banatzeko Lasarte-Oriako etxeetan. Arratsaldeko bostak aldera iritsi ziren herrira, eta kalejira eginez zeharkatu zituzten kaleak, Xixuko, Porrotx eta Mari Teilatukoaren laguntzarekin.

Ttakun KEko Kuadrillategiko gazteak zihoazen aurrea, suziak eskuetan. Ondoren, galtzagorriak koloretako konfetiak botatzen, Porrotx bihurriarekin. Pertsonaia mitologikoak ere animatu ziren festara: basajaunak eta lamiak. Azkeneko karrozan zihoazen ikazkina eta Mari Domingi, Xixukorekin batera. Bidean hainbat ume zituzten zain, eurak

ikusteko irrikitan. Hainbat argazki atera eta Olentzerok eskutitz batzuk ere jaso zituen.

Okendo plaza zuten helmuga. Ttiriki Ttarraka musika eskolako kideak zain zituzten ordurako taula gainean, trikiritza eta panderoa jotzen. Bukatu eta gero, arratsaldeko protagonistak atera ziren. Olentzerok herritarrekin hitz egin zuen eta galdetu zien ea ongi portatu ziren 2018an.

Oholtzatik jaitsi, eta umeen eskutitzak jasotzera abiatu zen Olentzero, Mari Domingirekin batera. Patxadaz eseri, eta gaztetxoekin hitz egin zuen, haien nahiak jakiteko.



Webgune berriaren itxura, sakelako telefonoan eta ordenagailuan. TXINTXARRI

TXINTXARRI-ko ataria, hezur eta mami berrituta

Berrikuntzak ekarriko ditu 2019. urteak. TXINTXARRI-ko webgunea berritzeko lanak bukatuta daude, eta urtarrilean argitaratuko da ataria goitik behera berrituta. Sakeleko telefonoetan ikusi eta irakurri ahal izateko bereziki prestatuta dago

Txintxarri

Olentzero eta Mari Domingirekin batera etorri da oparia. TXINTXARRI aldizkariak webgune berritua du dagoeneko. Bukatuta daude Codesyntax etxeak egindako lanak, eta urtarrilean bertan argitaratuko da atari berritua. Izango ditu ezaugarri berezi batzuk. 2019. urteko azken berrikuntzekin eta joerekin eginiko webgunea izango da. Alegia, bereziki prestatua izango da sakelako telefonoetan albisteak eroso irakurri ahal izateko, eta ikus-entzuzkoen kalitate onean gozatzeko. Izan ere, Internet kontsumitzeko joerak asko aldatu dira azken urteetan. Orain gehiago dira sarean sakelakoaren bidez sartzen direnak, mahai gaineko ordenagailua gero eta gehiago alboratuta.

2007. urtean egin zuen sarerako jauzia Lasarte-Oriako aldizkariak. Orduetik hainbatetan berriro du itxura, betiere saiatzen azken joerak eta teknologiak eskainitako aurrerapenak baliatzen.

Webgune berriak ere kontutan hartuko ditu TXINTXARRI-ren irakurleak eta erabiltzaileak. Izango du tartetxo bat komunitatearentzako, haien

intereseko ekitaldiak eta beste kontuak argitaratu ahal izan ditzaten.

Halere, aurreko ataritik gordeko dira tresna baliotsu batzuk. Hemeroteka, esaterako. Atari berriko erabiltzaileek ere TXINTXARRI-k orain arte Interneten argitaratutako albiste guztiak izango ditu eskuragarri. Beti bezala, Hemeroteka atalean hitz gakoa jarrita egin ahalko du bilaketa. Guztira 18.000 albiste inguru gordeko dira atarian.

Bestalde, herriko albistez gainera, beste informazio baliagarria ere jasoko du atari berriak. Kultur eta kirol agenda, eguraldiaren aurreikuspena, oharra...

Webgune berriak eskaintzen dituen abantailak aprobetxatuta, sare sozialak baliatzen jarraituko du TXINTXARRI-k, Lasarte-Oriako albisteak herritarren eskura jartzeko, euskaraz.

**ATARI BERRIA
BUKATU DU
CODESYNTAX ETXEAK,
ETA URTARRILEAN
ARGITARATUKO DA**



Ttakun Kultur Elkartea 2019 zoriontsua opa dizue!



Zorionak eta **Lasarte-Oriako Komertzioa, konfiantzazkoa** **Urte Berri On**

LASARTE-ORIAN BIZI, LASARTE-ORIAN EROSI






LASARTEARRA KIROL ETA KULTUR ELKARTEA

*2019 zorionsua
opa dizuegu!*

**Erribera kalea 10, atzealdea
943 36 29 97 - Lasarte-Oria**

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa,
Mailu Arruti, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Banatzaleak

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,
Naiara Goikoetxea.

Informatikoa

Beñat Gonzalez.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94

ISSN: 1134-0053

Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eguberri hauetan zeure buruari irribarrea oparitu,
eguneroko kafeak baino gutxiago balio du

Inplante tratamendu osoa
(inplantea+koroa+erradiologia proba)
22,60 € hilean

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!



*1.085€ 48 hilabetetan finantzatua. Erakundeak aurrez onartu beharreko sustapena

 **aldaz**
horts klinikak · clínicas dentales

943 36 63 77
Lasarte-Elgoibar-Tolosa